

# Emozioak ekintza kolektiboan. Emoziozko testuinguruaren bilakaera euskararen aldeko mugimenduan

ANE LARRINAGA RENTERIA<sup>1</sup>

*Parte hartuz ikerketa-talde egonkortua (UPV/EHU)*

## (Emotions in collective action. The development of the emotional context in the Basque linguistic movement)

DOI: 10.1387/gogoa.18658

### Abstract

*The article studies the evolution of the movement in favour of the Basque language in the post-Francoist period, especially between the 1980s and the 2000s. The article identifies the transformations the movement has undergone and employs a series of conceptual tools, used in the analysis of emotions in social movements, to interpret this process. Based on frame-analysis, the article examines the discursive and emotional changes that have enabled the movement to adapt its collective action to the changing social and political conditions of Basque society. Special attention is paid to the movement's dynamics of institutionalization, and to the challenges it faces in reconciling its increasing professionalization with the maintenance of a broad affective adhesion that preserves the symbolic and emotional capital inherited from the movement's beginnings.*

**Keywords:** *emotion, collective action, Basque language, social movement, discourses.*

---

<sup>1</sup> Esker ona adierazi nahi diet GOGOIA aldizkariko ebaluatzaileei, egindako iruzkinengatik, eta euskara-zuzentzaileari, testuaren zuzenketagatik. Guztien laguntzari esker osatu dut artikulu honen azken bertsioa.

## 1. Sarrera

Bizitza sozial eta politikoaren arrazionalizazioa kultura modernoaren elementu egituratzaileetako bat izan da. Arrazionalizazio horrek hainbat ondorio ekarri ditu, bai politikoak bai ezagutzazkoak. Alde batetik, arrazionalizazioak emozioz hustu ditu bizitza publikoa, instituzio sozialak eta esperientzia subjektiboa. Beste alde batetik, emoziozko faktoreak aintzat hartzeko errepairoa sortu du bizitza sozialaren azterketan eta, oro har, ezagutzaren beraren ekoizpenean. Ondorioz, emozioak saihestu egin dira denbora luzez, hala esparru sozialean nola akademikoan. Horiek horrela, nagusitu den testuinguru arrazionalistan mugimendu sozial jakin batzuei egotzi zaien emoziozko gainzama mugimendu horien ekintzak deskalifikatzeko erabilitako argudioetako bat izan da hainbat diskurtso sozialetan. Emoziozko ikur hori daukaten mugimenduen artean egon ohi dira emakumeen mugimenduak, baita osagai etnikoak dituzten mugimenduak ere; linguistikoak, besteak beste. Behin baino gehiagotan, emozio-egozte horrek mugimenduon deslegitimazioa sortu du analisi sozialean; eta, noiz edo noiz, portaera irrazionalaren kategorian sartu da haien ekintza, hainbestekoa izan da irizpide arrazionalaren eragina. Izan ere, Craig Calhounek adierazten duen bezala (2001), emozional/arrazional dikotomia ez da deskripziozko baliabide neutroa, oihartzun kultural handiko sailkapen-matrizean ainguraturik dagoen dualtasuna baizik. Hain zuzen ere, dualtasun horretan kokatzen dira kultura modernoan sustraitutako dikotomia esanguratsuak: gorputza eta espiritua, pasioa eta arrazoia, indibidual eta kolektiboa, partikularra eta orokorra, pribatua eta publikoa, maskulinoa eta femeninoa, eta eliteen arrazoia eta masen haserrea, esate baterako.

Artikulu honetan, 1980tik 2000ko hamarkadara arte euskararen aldeko mugimenduak izandako bilakaera hartu da aztergai. Erakutsi nahi dugu bateragarriak direla emozioek mugimendu baten ekintzaren orientazioan duten eragina eta mugimendu horren arrazionalizazio eta instituzionalizazio progresiboa. Inondik ere ez direla elkarrezinak emozioak eta mugimenduen ezagutzazko garapena edo haren desafio estrategikoen lorpena. Ildo horretan, euskal gizartearen agertoki sozial eta politiko aldakorretara egokitu nahian, Euskararen aldeko Mugimenduak (EM, aurrerantzean) bere diskurtsoak enmarkatzeko egindako prozesuak aztertuko dira, honako hau agerian uzteko: (1) emozioak ekintza kolektiboaren faktore motibatzaileak direla, (2) mobilizatutako taldeen barne-kohesioaren eraikuntzan laguntzen dutela, baina, aldi berean, barne-gatazka dagoen uneetan banaketa ere areagotu dezaketela, (3) hautaketa estrategikoen oinarrian daudela, eta (4) testuingururik instituzionalizatuenetan ere energiaz elikatzen dutela mugimenduaren ekintza kolektiboa eta mugimenduari atxikimendu soziala ematen diotela, eta, hori eginda, haren iraunkortasuna babesten dutela denboran zehar.

James Jasperek dioenez (2011), esanahiak azaltzeko erabilitako edozein teknika egokitu daiteke emozioen azterketara; egile horrek adierazten du,

gainera, hizkuntzazko baliabideak baliatu behar direla emozioak atzemateko. Proposamen metodologiko horri jarraiki, teknika kualitatiboak erabili dira azterketa honen oinarrian dauden datuak sortzeko. Lehendabizi, EMaren baitako zenbait erakundetako informatzaileei egindako elkarrizketetatik jaso dira datu horiek. Guztira, sakoneko 10 elkarrizketa erdi-egituratu egin dira mugimenduaren bilakaeraren inguruan. Zehazki, EMaren barruan duten kopak kualifikatuari esker hautatu dira informatzaileak. Elkarrizketatu guztiek ibilbide luzea dute; ez soilik aktibista moduan, baita aditu, intelektual, teknikari eta dibulgatzaile moduan ere. Hartara, presentzia nabarmena izan dute esparru publiko euskaldunean. Ildo horretan, EMaren eboluzioaz eta mugimenduaren barnean izandako bizipenez galdetu zaie. Datuak lortzeko bigarren bidea EMaren barruan sortutako idatzizko materialaren berrikusketa eta analisisa izan da. Ikerketaren helburuen arabera osatu da dokumentuen bilduma. Hartara, mugimenduaren kideek sortutako liburu, aldizkari eta egunkari-artikulu batzuk baliatu dira testu honetan agertzen den analisisa osatzeko. Aipatutako datuak kontuan izanda, eta abiaburutzat hartuta euskararen aldeko mugimenduaren bilakaeraren azterketa, artikulu honetan mugimendu sozialen ekintza kolektiboaren eraikuntzan eta mantenuan emozioek betetzen dituzten funtzioetako batzuk aztertzen dira.

## 2. Emozioak mugimendu sozialen azterketan txertatzen

Afektuen eta emozioen azterketek gora egin dute azken hamarkadako gizarte-zientzietan, errealitate soziala pentsatzeko formula berriak bilatu dituzten askotariko proposamenak tartean direla. Proposamen multzo horri *affective turn* edo bira afektiboa deritzote batzuek (Lara & Enciso, 2013). Orain dela gutxira arte emozioa eta irrazionaltasuna lotzen zituen ikuskera baztertu ondoren garatu da emozioen txertaketa analisi sozialean. Izan ere, gaur egun neurozientzietan, psikologian eta gizarte-zientzietan egindako azterketek ideia berean egin dute bat. Hain zuzen ere, hainbat esparrutan gauzatu diren ikerketek kognizioaren eta emozioaren, are gehiago, arrazoiaren eta emozioaren arteko lotura estu-estuaren berri eman digute. Neurozientziak erakutsi duenez, emozioez eta erabaki-hartzeez elkarrekin arduratzen diren burmuineko sistemek parte hartzen dute kognizioan eta portaera sozialean (Damasio, 2006). Zalantzarik gabe, gizarte-zientzien epistemologiaren aldaketa bideratzen ari dira diziplinarteko aurrerapen horiek (Maiz, 2010).

Emozioak ulertzeko eratu diren teorien artean, teoria kognitibista deritzona nagusitu da gaur egunean. Haren arabera, emozioek substratu kognitiboa dute, eta ez sentipenezko oinarri hutsa (Camps, 2011). Mendebaldeko pentsamenduan luzez gailendu diren planteamendu dualisten aurrean, teoria kognitibistak sentimenduaren eta intelektuaren arteko sinbiosia hartzen du abiaburu edo, nahiago bada, gorputzaren eta adimenaren artekoa, naturaren eta kulturaren artekoa. Emozioen ikuspegi fisiologiko hutsen aurka, teo-

ria kognitibistek diote, desirez gain, emozioak sinestez, epaiketaz eta kognizioz ere osaturik daudela. Hortik dator haien saihetsezinezko izaera soziala (Gros, 2006) eta historikoa. Bada, emozioak eraikuntza kulturalak dira, eta testuinguru kultural jakinean baino ez dute esanahirik hartzen, kulturak definitzen baititu indarrean dagoen erregimen emozionalaren parametroak, eta ezartzen baitu zer emozio mota senti dezakeen norbaitek egoera jakin batean (Mees, 2015).

Hala da. Orain arteko ikuskera biologiko hutsak naturalizatu egin ditu emozioak, eta substantziaren nolakotasuna erantsi die. Ikuspegi naturalizatu horretan giza espeziearen osotasunean modu berean eta edozein baldintzatan agertzen den egoera aldaezina litzateke emozioa. Ikusmolde hori baztertu egin da gaur egun. Izan ere, emozioak eta sentimenduak ezin dira transferitu banako batengandik beste batengana, edo talde batetik beste batera. Aitzitik, emozioak harremanak izan ohi dira eta, beraz, eraikuntza sozialaren eta kulturalaren emaitza (Le Breton, 2013). Emozioek jarduera kognitibo bati erantzuten diote. Pertsonak egoera sozialez egindako interpretazioen ondorio dira. Egoera horiek ezagutza- eta balio-sistemen bitartez interpretatzen dira, esan nahi baita, indarrean dagoen kode kulturalaren bitartez. Egoerari esleitutako esanahiak ezartzen du bizitako emozio mota, halako moldez non emozioa bera zentzu era bat den (Le Breton, 2013). Horrela, pertsonak sentitu, hauteman eta adierazten dituzten emozioak beren talde sozialaren kultura-errepertorioaren zati bat dira. Ildo horretan, komunitate sozialari buruzko filiazio moduak dira emozioak, elkar ezagutzeko eta elkarrekin komunikatzeko bideak. Aldaketa indibidualentzako tokia egon ohi den arren, baldintza sozial jakinei dagozkien sentimenduak emoziozko sozializazioan ikasi ohi dira (Duperré, 2008). Jatorri sozial eta kultural horretatik dator emozioen alderdi arauemailea ere (Sommier, 2015).

Mugimendu sozialen azterketan gertaturiko bira kulturalaren ondorioz, azken urteetan emozioak lantzen hasi dira esparru horretan (Goodwin & Jasper, 2006). Theodore Kemperek gogorarazten duenez, mugimenduak emozioz gainezka dauden testuinguru sozialak dira. Emozioak aintzat hartu ezean mugimenduen azterketan, zaila da haien sorrera azaltzea, metatzen duten atxikimendua ulertzea, ekintza kolektiboaren fase luzeetan jasotzen duten laguntzaren arrazoiak hautematea eta, azken finean, kide aktiboak bilatzeko eta aldeko jarraitzaileak elikatzeko baliatzen dituzten bitartekoen nolakotasunaz ohartzea (Kemper, 2001). Lehenago esan denez, mundua interpretatzeko eta hari zentzua emateko pertsonak garatzen dituzten ezagutzazko prozesuetan tartekaturik daude emozioak. Horregatik, ezinbestekoa da emozioak aztertzea protestaren eta mugimendu sozialen ikerketan ere (Poma & Gravante, 2013).

Horiek horrela, mugimendu sozialen azterketan nagusi diren paradigmak berriz arakatu dira azken urteotan. Izan ere, osagai emozionalak saihestean, arrazionaltasun instrumentalean oinarritutako ohiko ereduak ez dute

beti modu egokian azaldu mugimenduetako parte-hartzaileen aktibazioa (Goodwin, Jasper & Polleta, 2001), ezta haien ekintzari esleitutako zentzua ere. Pragmatismoak, feminismoak eta beste tradizio batzuek ekintza kolektiboa beste era batera ulertzeko tresnak eskaini dituzte azkenaldi honetan, bereziki emozioak aintzat hartuta eta arretagunea testuinguru kulturalan jarrita (Latorre, 2005; Jasper, 2012). Horrela, teoria kulturaletan erabilitako eredu teorikoak eta kontzeptuak (esaterako, identitatearen ereduak, diskurtsoen markoak, eta abar) gaizki eratuta egongo lirateke emoziozko mekanismo kausalak era esplizituan kontuan hartuko ez balituzte (Jasper, 2011). Ildo horretan, kognizioarekin eta moralitatearekin batera emozioak kulturaren parte direla proposatzean, konstruksionismo kulturalak erreminta erabilgarriak eskaini ditu emozioak ulertzeko ekintza kolektiboan. Modu horretan, lehenago ikuspegi kognitibo hutsetik aztertzen ziren hainbat prozesuren azpian emozioak ere badaudela ikusi ahal izan da, adibidez «markoen lerrokatzean» (*Frame Alignment theory*), baita egiturazko ikuspegitik aztertutakoetan ere, adibidez, aukera politikoaren eta egitura sozialaren planteamenduetan (Jasper, 2012).

Bestalde, mugimendu sozialak ikertzeko interesa izan ahal duten emozioei buruzko teoria soziologiko modernoak ez dira kulturaren esparrura mugatzen. Aitzitik, egitura soziala ere barnean hartzen dute (Goodwin & Jasper, 2006). Hain zuzen ere, emozioen egiturazko ikuskerak harreman sozialen eta emozioen arteko loturak aztertzen ditu; zehazki, aldaketa edo egonkortasun soziala eragin dezaketen emozio motak zein baldintza estrukturalatan sortzen diren analizatzen du ikuspegi horrek. Horrenbestez, egiturazko ikuskeran aztertzen da, adibidez, zer-nolako baldintza sozialek sortzen dituzten mugimenduetako kideak biltzeko lagungarriak diren emozioak, edo zein diren denboran zehar kide horien arteko elkartasunari iraunarazten dioten afektuak. Perspektiba horretan, harreman sozialen multzoaren barruan gizarteko taldeek duten botere eta estatus mailaren analisisian jartzen da arreta guzuz (Kemper, 2001; 2006).

Emozioen azterketa estrukturalak ahalbidetzen du mugimenduek gauzatzen dituzten enmarkatze-prozesuak (*framing processes*) haien harremanezko esanahien ildoan interpretatzea eta, hartara, mugimenduetan nahasirik dauden emozioak aztertzea. Zalantzarik ez, mugimendu sozialak ideien eta sinesteen eroaleak izan ohi dira. Gainera, aldaketaren aldeko eragile aktiboak dira, ekintzan inplikaturik dauden pertsonentzat nahiz gainerako gizarteko kideentzat esanahiak sortzen eta esleitzen dituztenak. Esanahien lanketa horren bitartez, gizartean eskura dauden diskurtsoak egituratzen eta moldatzen dituzte mugimenduek; areago, «enmarkatu» egiten dituzte eta zentzua esleitzen diete. Hala, garrantzitsu jotzen dituzten gertakariak interpretatu eta diskurtso-testuinguru edo «interpretazio-marko» jakin batean kokatzen dituzte (Snow & Benford, 1988; Hunt, Benford & Snow, 1994; Benford & Snow, 2000).

Enmarkatze lan horrek errealitate sozialaren hautematearen eta errepresentazioaren atzean dauden egitura kognitiboak ezartzen ditu. Zehazki, Snowek eta bere kideek hiru prozesu bereizten dituzte: diagnostikozko enmarkatze-lana (arazoaren definizioaren terminoak finkatzen ditu mugimenduak bere diskurtsoan), pronostikozkoa (mugimenduak irtenbide bat proposatzen du) eta motibaziozkoa (pertsonek ekintzan engaiatzera bultzatzen dituen pizgarriak sortzen ditu mugimenduak). Azken prozesu hori, hain zuzen ere, estu loturik dago emozioekin (Goodwin, Jasper & Polletta, 2001; Goodwin & Jasper, 2006). Horrela, enmarkatzearen lehen teoriariek prozesuaren alderdi kognitiboan jarri badute arreta ere, azken aldian emozioen aztertzaileek (Jasper, 1998; Goodwin, Jasper & Polletta, 2001) erakutsi dute marko diskurtsiboen eraikuntzak eta lerrokatzeak orain arte saihestu diren emoziozko osagai garrantzitsuak hartzen dituztela barnean. Izan ere, interpretazio-marko bat zabaltzeak, ideologikoki bat datozen markoak uztartzeak, edo interpretazio-marko bat eraldatzeak, marko horietan nahasita dagoen ezagutza norabide berrian jartzea ez ezik hartan inplikaturik dauden emozioak moldatzea ere badakar, estatus- eta botere-harremanen baldintza berrietan. Hala, marko jakin bat eraldatzea emoziozko aldaketa bat da, funtsean; bada, mugimenduaren ezagutzak hartutako bide berriak emozioak berriz eratzea eskatzen du harremanezko agertoki jakinean (Kemper, 2001).

### **3. Euskararen aldeko mugimenduaren haustura afektiboa 80ko hamarkadan**

Herri-ekimenean oinarritutako euskararen aldeko ekintza kolektiboak joan den mendeko 60ko eta 70eko hamarkadetan dauzka oinarriak. Espainiako gerra zibilaren osteko urteetan Francoren erregimenak euskararen eta euskal kulturaren adierazpen guztien aurkako zapalkuntza ezarri zuen, hainbesteko indarrez ezarri ere non nabaritasun osoz agertzen zen jazarpenaren gordintasuna pertsonen eguneroko bizitzan. Ondorioz, euskal gizartean «bidegabekeria-marko» bat (Gamson, 1992) eratzen joan zen, eta berriki definituriko bidegabekeria hori talde sozial esanguratsuen kontzientzian ainguratzaren hasi zen. Gurruchagak «hizkuntzaren dramatizazioa» deritzon prozesua gauzatu zen (Gurruchaga, 1985). Esan nahi baita, hizkuntzaren funtzionaltasunaren galera traumatikoa eta autokontzientea izan zen, ez ezkutukoa (Pérez Agote, 1984). Ikuspegi kognitibotik eta emozionaletik begiratuta, ageriko galtze horrek «shock morala» eragin zuen (Jasper, 1997), eta gaur egunera arte iraun duen euskal hizkuntzaren gain-balorazio sinbolikoa ekarri zuen berarekin batera (Pérez Agote, 1984; Tejerina, 1992).

Modu paradoxikoan, gabetze-sentimendu hori sortzeaz batera, zapalkuntza linguistikoa euskararen inguruko emozio negatiboak ere hedatu zituen, sozialki partekatutako esanahi batzuetan oin hartuta. Euskararen erabilerari buruzko berariazko debeku ofizialak, ezarritako isunak, eta aginte politikoa eta

prestigio soziala zuten eragileek jaurtitako deskalifikazio publiko sistematikoak, besteak beste, hiztun izan zitezkeen guztien duintasunik eza areagotzera zuzendutako politikaren parte izan ziren, eta, hiztunen autoestimua hondatzea izan zuten helburu. Horrela, euskarari eta euskal hiztunei lotutako frustrazio-sentimendua, konfiantzarik eza, lotsa eta etsipena nagusi izan ziren Euskal Herriko gerraosteko belaunaldi berrien zati baten sozializazioan. Giro horretan, nekazaritza munduko hizkuntza landugabea eta zakarra izatea egotzi zitzaion euskarari eta, ondorioz, kulturarako eta bizitza modernorako balioa ukatu zitzaion.

Ildo horretan, gogoratu behar da izen ona eta duintasuna izaten direla pertsonen ekintzaren eragingarririk ohikoenetakoak, gizartean ematen eta kentzen diren ezaugarri horiek pertsonen gizatasunaren aitortzari loturik egoten direlako. Hori dela eta, ezaguna da protesta-mugimendu asko lotsa harrotasun bihurtzeko ahaleginean gauzatzen direla (Jasper, 2011). Victoria Campsek nabarmentzen duenez, desberdintasun soziala gailentzen den egoeretan, baliabide sozialak ez ezik emozioak ere desberdin banaturik egoten dira: pertsona batzuek harrotasunaren monopolioa eduki ohi dute; beste batzuek, aldiz, ez dute goraiatzeko ezer izaten (Camps, 2011). Egiatan, harrotasunaren eta lotsaren arrazoiak ez dira inondik ere naturalak, sozialak baizik (Gross, 2006), eta egitura sozialari eta egitura horretatik sorturiko botere-harremanei estu-estuan loturik egoten dira. Izan ere, emozio negatiboak talde sozial jakin batzuen botere- eta estatus-defizitarekin batera garatzen dira. Hain zuzen ere, EMA hautemate eta sentimendu horietatik abiatu zen, eta horiek iraultzeko saio modura sortu zen. 60ko eta 70eko abagune sozialean hiriguneetatik zetozen gazteak agertu zirenean eman zitzaion hasiera norabide-aldaketari. Izan ere, artean gerra ezagutu gabe sortzen ari ziren belaun berrietan bazeuden jadanik kultura kapital esanguratsuz hornitutako gazteak, indarrean zeuden botere-harremanei aurre egiteko baliabideak zituztenak eta, horrenbestez, diskurtso-marko nagusia nahiz erantzukizun-egoztea eraldatzeko gauza zirenak. Bada, botere-defizita norbere buruari egozten zaionean, emozio nagusia lotsa izan ohi da. Aldiz, besteari egozten zaionean, haserrea sortzen da (Kemper, 2001) eta haserre horretatik mobilizatzeko eta gauzak aldatzeko aukerak irekitzen dira.

Nik sumatzen dut azkenean herri honek behar izan duela halako autoestimua bat errekeratzea, autokonfiantza errekeratzea. Eta uste dut hor klabeetako bat izan zela *Ez Dok Amairuren* diskurtsoa (...) esatea «euskera (...) egin behar dugu sorkuntza lotsarik gabekoa eta, inkluso, abangoardista bat (...) konplejurik gabe kultura puntakoa egitea» (...) Ikusten ez diren faktore kualitatibo horiek, autoestimua, kultura garela bisualizatzeara, etorkizuna daukaguna bisualizatzeara... (...) euskal komunitatearen autokonfiantza funtzio hori (E-2).<sup>2</sup>

<sup>2</sup> Egindako elkarrizketak zenbatu egin dira. Beraz, analisia laguntzeko hautatu diren aipuen amaieran elkarrizketari esleitutako zenbakia agertzen da: E-1, E-2, E-3 eta abar.

Belaunaldi berriek euskal diskurtso nazionalistaren marko orokorren barnean kokatu zuten euskarari buruzko erreibindikaziozko diskurtsoa. Hortaz, 60ko eta 70eko hamarkadetan garatutako EMA 50eko hamarkadaren amaieran hasitako mugimendu kultural eta politiko nazionalistaren susperraldiari uztarturik ulertu behar da. Izan ere, garaiko euskal nazionalismo eraberrituak euskal identitate kolektiboaren ikur eta erreferentetzat hartu zuen euskara. Definizio hori egitean, hizkuntzaren berezko funtzio komunikatzailetik harago zegoen balio erantsia esleitu zitzaion euskarari. Hartara, euskarak balio sinboliko handia eduki du eta dauka gaur egun ere, txerazko identifikaziorako bide ematen duena eta, bereziki garai hartan, modu nabarmenean hizkuntzaren balio pragmatikoaren beraren gainetik zegoena (Tejerina, 1992). Hain zuzen ere, balio erantsi horrek azaltzen du euskal hiztun izan ez diren pertsona askok hizkuntzaren kausari izandako atxikimendua.

Bestalde, EMak sortu zituen elkartasun lausoa eta begikotasunezko atxikimendua euskaltzaleen taldetik eta euskal esparru nazionalistatik at ere zabaldu ziren behin baino gehiagotan. Bada, EMaren diskurtsoa eta ekintza gainerako mugimendu eta indar politiko antifrankisten sintonia berean kokaturik zeuden eta, diktaduraren aurkako erreibindikazio demokratikoen multzo berean bilduta egotean, eragile askok partekatzen zuten erregimenaren aurkako interpretazio-marko orokor bera —*master frame* delako bat (Snow & Benford, 1992). Era horretan, frankismoaren azken garaian eta frankismo osteko lehen urteetan ere bai, «hizkuntzaren auzia» marko politiko batean integraturik zegoen; are gehiago, frankismoaren aurkako borroka politikoan txertaturik ulertzen zen mugimenduaren ekintza ere eta, beraz, modu nabarmenean irudikatzen zituen EMak bai erresistentziatzko borroka eredu bai aktibismo mota horri itsatsitako emoziozko energia. EMA itzelezko indar afektiboaren katalizatzaile eta onuradun izan zen, eta indar horrek elikatu zuen mugimenduaren ekintza kolektiboa aukera politikoen egitura guztiz aurkakoa zen garaian. Euskararen batasuna, ikastolen sorrera eta euskararen irakaskuntzaren hastapenak izan ziren, besteak beste, EMaren mugarriak urte horietan.

Iruditzen zait ia-ia energia kontua ere badela, ezta? Atzera begirata sinestezina egiten da askotan zer energia eta zer indarrekin egin ziren euskararen aldeko mugimenduak egin zituen gauzak (...) baliabideak faltatzen direnean, pertsonak eta ideak dira indarra ematen dutenak (...) ikastolen mugimendua da horren adibide nabarmenena (...) inprobableak ziren gauza pila bat egin ditu gizarte mugimendu horrek (...) imposible asko egin zen. Orduan, energia, eta bizipoz, bizinahi hori asko baloratzen det, iruditzen zaidalako hori gero balore bihurtu zaigula gizarte honetan (...), ikastolak, helduen euskalduntze-alfabetatzea, herrietako euskara elkarteak ... (E-7).

Halere, Francoren heriotzaren ostean Espainian gauzatu zen aldaketa politikoak EMaren krisia ekarri zuen. Izan ere, sistema autonomikoaren eraketa tartean zela, Espainian abian jarritako estatuaren berrantolaketak indar poli-



tiko nazionalisten banaketa eragin zuen euskal gizartean, indar horiek instituzionalizazio autonomikoaren aurrean hartutako estrategien arabera. EMaren oinarri sozial nagusia izanik, euskal nazionalismoaren zatiketak ondorio larriak izan zituen mugimenduentzat, eta baliorik gabe utzi zuen haren ordura arteko jardueraren logika. Txerazko alderdi garrantzitsua zeukan zisma politiko gisa bizi izan zen krisia. Bada, nazioaren gakoetako bat emoziozko eta bizipenezko dimentsioa denez (Connor, 1998), arteraino euskal unibertso nazionalistak erakutsitako irudikapen komunitarioaren haustura sinbolikoa eragin zuen zatiketa politikoak. Hori zela eta, bihozmina, haserrea eta adorerik eza zabaldu ziren bizkor barne-konfrontazioz jositako mugimenduen oinarri sozialean barrena.

Atomizazio horren adierazle oso garbia da (...) eta hain txikiak izanik (...) Euskal Herri mailan euskeraren gizarte eragile izan daitezkeen pertsona taldeak (...) ia-ia familian gaude ... (E-7).

Garai horretako prozesua (...) samintasunez, nolabaiteko porrot historiko baten ondorio gisa [bizi izan nuen] (...) Orduan zer ekarri du? Netzako tristura handi bat (E-4).

80ko hamarkadan hemen ez dago elkartzerik. 80ko hamarkadan hemen konfliktoa dago. Eta eragin asko dituen konfliktoa kulturgintzan eta euskalgintzan (E-8).

Instituzionalizazio autonomiko progresiboaren ondorioz, gizarte zibilaren testuinguruan lehenago ekintza kolektiboarenak soilik ziren jarduera-esparruak bereganatu zituzten apurka-apurka instituzio politikoek. Instituzio autonomikoek garatutako politikek, politika kultural eta linguistikoek, besteak beste, lekua kendu zioten geldi-geldi herri-ekimenaren ekintza kolektiboari. Horrenbestez, euskararen berreskurapenak gizarte zibilaren ardura hutsa izateari utzi zion, eta gobernu-politiken erantzukizuna izatera igaro zen. Bestalde, euskal nazionalismoaren barne-banaketak areagotu egiten zuen mugimenduen bazterketa hori. Alde batetik, nazionalismo kontserbadorea zegoen, EAEko botere autonomikoa kudeatzen zuena, eta, beste alde batetik, ezkerreko nazionalismoa, marko instituzional berriaren aurka zegoena. Hain zuzen ere, bien arteko zatiketak higitu egin zuen gatazka, eta lehenago kanpoko arerioaren kontra irudikatzen zen aurkakotasuna (erregimen frankistaren agintari eta aginduetan adierazia), nazionalismoaren barnera lekualdatu zen eta, ondorioz, euskal hiztunen taldera.

Modu horretan, hautsita geratu zen frankismoaren garaian hizkuntzaren inguruan zegoen adostasun formala, eta desadostasuna nagusitu zen. Hartara, arrazoi desberdinen eta kontrajarritako interesen eraginez, auzitan jarri zen hizkuntzaren aktibismoan une horretara arte indarrean zegoen erreindikazio-markoa (Larrinaga, 2007; Larrinaga & Amurrio, 2016; Martínez de Luna, 2010). Mugimenduen zati bat kritiko eta etsirik agertu zen autonomiaren kudeatzaileek hartutako ildoarekin, uste baitzuten orekarik gabeko

elebitasunera, areago, egoera diglosikora, zuzendutako politikak bultzatzen zituztela agintari berriek. Horiek horrela, gobernuan zegoen indar nazionalistaren hizkuntza- eta kultura-politiken aurka azaldu ziren mugimenduko erakunde batzuk, eta gogor ekin zioten hertsatzaile jotzen zuten legezko markoa kritikatzeari. Egoera horren ondorioz, fase autonomikoaren hasierak sakoneko identitate-krisia eragin zuen EMan. Mugimenduaren erakundeen arteko zatiketa gero eta handiagoa, diskurtso-aldaketa eta Euskal Herriko esparrutik tokiko jardun-guneetara egindako jauzia izan ziren, besteak beste, haren barnean gertaturiko metamorfosiaren zantzuak.

Izan ere, une horretan bi eratako organizazioek parte hartzen zuten elkarrekin EMan. Batetik, aurreko zikloko tradizioa jaso zuten erakundeak zeuden, erreibindikaziozko aktibismoan oinarrituak, euskal hiztunen eskubideen defentsari protestako ekintza moldeak erabilia ekiten ziotenak eta, era berean, gobernu eta administrazio autonomikoekin konfrontazio-estrategia bultzatzen zutenak. Bestetik, ziklo politiko berriari hobeto egokitutako tokiko euskara-elkarteak zeuden. Azken horiek aurretik aipatutakoak baino adierazpen despolitizatuagoak eta espezializatuagoak ziren; gainera, baliabide tekniko eta kognitibo hornituak eta, neurri batean edo erabat, funts publikoekin diruz lagundutakoak. Horrenbestez, mugimenduaren erreferentziazko organizazio izatera iritsi ziren hurrengo etapan (Larrinaga & Amurrio, 2016; Larrinaga, 2017).

Bestalde, mugimenduko erakunde batzuen konfrontazio-estrategiak bat egin zuen denboran fase politiko autonomikoan euskal gizartean hasitako desmobilizazio partzialarekin. Baita mugimenduaren barne-dibertsifikazio eta profesionalizazio progresiboarekin ere. Horrenbestez, frankismoaren garaian hizkuntzaren kausak metatutako kapital emozionalaren eta atxikimendu afektiboaren galera ekarri zuen etapa berriak. Garaiko argitalpenek erakusten dutenez, mugimenduaren krisiak EMak esparru politikoaz izan beharreko autonomiari buruzko eztabaida sakonari eman zion hasiera, eta politikarekiko mendekotasunak ekarritako kalteak azaleratzen ziren sarri debategan. Autonomia/heteronomia eztabaida horretan, euskarak eta euskal kulturak berezko zentralitatea izan behar dutela adierazten zuten batzuek, eta euskararen aldeko mugimenduak independentzia maila bat izan behar duela abagune jakineko estrategia politikoetatik harago. Ikuspegi horri dagokion diskurtsoa jorratzeko premia ere agertzen da aipatu debateetan<sup>3</sup>.

Hala, arian-arian, bi marko kognitibo hezurramitu ziren mugimenduaren barnean eta, hartara, euskararen aldeko ekintza kolektiboa ulertzeko bi modu bereizi. Bata politikoagoa zen eta, ondorioz, botere-harremanei eta erreibindikaziozko ekintza politikoari ezinbestean lotuta ulertzen zuen hiz-

---

<sup>3</sup> Euskalgintzaren garai horretako eztabaida batzuk Joxe Manuel Odriozolak jasotzen ditu. Ikus Odriozola (2004).

kuntzaren defentsa. Bestea kulturalagoa zen planteamenduetan, baita gero eta gerentzialistagoa ere, eta jardun-gune autonomoa esleitzen zion hizkuntzaren aldeko ekintzari. Bi ikuspegi horiek, aktibismo linguistikoaren interpretazio eredu desberdinak ez ezik, instituzio politiko autonomikoekiko harremanak ulertzeko modu desberdinak hartzen zituzten barnean; gatazkatsuak eta konfrontaziozkoak lehen kasuan, eta adostasunezkoak eta lankidetzazkoak bigarrean. Bi definizio horiek elkarrekin zeuden, eta elkarrekin lehiatzen ziren beren hegemonia ezartzeko asmoz mugimenduaren barruan (Larrinaga, 2007; Larrinaga & Amurrio, 2016; Larrinaga, 2017).

Hala ere, garai hartan azaldutako zatiketak diskurtsoetatik eta ezagutzatik harago doan bestelako dimentsio bat ere bazeukan. «Gogo-egoera» edo aldarte bat emoziozko testuinguru iraunkor gisa ulertzen da emozioen soziologian (Jasper, 1998; Poma & Gravante, 2013). Hain zuzen ere, orain arte aipatutako EMaren haustura kognitiboa eta diskurtsiboa ezin zen ulertu gogoaldarte jakin baten aldaketarekin batera ez bada. Izan ere, hasierako marko kognitiboaren hausturari berezkoa zitzaion afektu-haustea ere gertatu zen 80ko hamarkadako euskararen aldeko mugimenduan. Bi zentzutan adierazi zen aldaketa. Alde batetik, etsipena zabaldu zen orain zatiturik agertzen zen mugimenduaren kide guztien artean, ordena komunitarioari berez zegokion elkartasunaren galera-sentimenduak eraginda. Beste alde batetik, jarduera aktibistan adierazpen emozional neurtuagoak, alegia, egoera berrira egokituak, erakusteko premia ere sortu zen interpretazio berria bultzatzen zutenen artean. Bada, hein batean, mugimenduaren interakzioak instituzio politiko autonomikoekin gauzatu behar zuenez, intentsitate gutxiagoko inbertsio afektiboa eskatzen zitzaien EMaren parte-hartzaileei. Era horretan, interpretazio-marko berrian nagusitzen zen ekintza aktibista urrundu egin zen, apurka-apurka, aurreko zikloan garatutako ekintza kolektiboak berarekin zekarren goi mailako intentsitate emozionaletik.

Bizi izandako baldintzak ez ziren egokienak (...) eta kulturalki nik uste nahiko astokiloak garela eta astokiloak izatea ez da (...) baldintzarik hobereena ere (...) Baina, orain norabide onean goaz (...) Egun, oso atsegina da euskeraren inguruan lan egitea, ze posible da interlokuzioa eragile mota guztiekin izatea, eta zure aldetik abilitade pixka bat jarrita, eta kontuz ibilita eta onestua izanda aldi berean, posible da elkarlana bultzatzea (E-3).

#### **4. Mugimenduaren marko kognitiboa eta emozionala berregituratzen 90eko hamarkadan**

José M.<sup>a</sup> Sánchez Carrión, *Txepetxen lana*<sup>4</sup> mugarriztat jo da EMaren historian. Hain zuzen ere, lan hori 90eko eta 2000ko hamarkadetan mugimen-

<sup>4</sup> Ikus J.M. Sánchez Carrión (1987).

duak izandako berrantolatze kognitiboaren iturri modura hartu da, neurri handi batean. Bat datoz ideia horretan elkarrizketatutako informatzaile guztiak. Ildo horretan, gogoratu behar da euskalgintzaren barruan goretsia izan zela Txepetxen lana, argitaratu zen une beretik, eta diskurtso eta praktika berria abian jartzeko aukera iragartzen zela haren planteamenduetan oin hartuta. Iragarpen horrek adierazten du, batetik, 80ko hamarkadaren amaieran dagoeneko bukatutzat hartzen zela ekintza kolektiboaren ziklo bat mugimenduaren barnean eta bestelako etapa baten premiaren kontzientzia zegoela sustraituta bertan. Bestetik, lanak berak jasotako harrerak eta laudorioek erakusten dute adituen ezagutza eta, oro har, mugimenduetako intelektualen lana aitortzen zela, inplizituki bada ere, mugimendu baten identitatearen formulaziorako eta berrorientatze estrategikorako ezinbesteko tresna gisa.

Izan ere, Bigarren Modernitatearen garaian mugimendu sozialek ezagutza eta ekintza sortzen dute. Hain zuzen, praktika kulturala eta praktika politikoa uztartzen dituzte beren jardunean (Melucci, 2001). Indarrean dauden dominazio formak ezagutza zientifikoak erabilia baino ezin direnez ezarri (Bourdieu, 1997), dominazioaren aurreko erresistentziak eta ekintza kolektibora nahiz aldaketa sozialera bideratutako proiektuak ere ezagutzazko baliabide berberak baliatuta gauzatu behar dira, ezinbestean (Epstein, 1998). Oro har, adituen ezagutzak laguntzen du era guztietako identitateak eraikitzen aro garaikidean (Muriel, 2017). Ezagutzak ekintza kolektibo orotan duen funtzio sortzailea azpimarratzeko asmoz, Ron Eyerman eta Andrew Jamisonek *cognitive praxis* deritzon kontzeptua darabilte (Eyerman & Jamison, 1991). Ezagutzaren kontzeptu hori ez da ezagutza zientifiko eta akademikora mugatzen, zentzu hertsian; aitzitik, mugimendu batek haren parte-hartzaileen etengabeko ekintzen bitartez sortzen duen oinarri kognitiboa dute gogoan, oinarri horrek uzten baitie parte-hartzaileei errealitate sozialari buruzko ikusmolde jakin batzuk partekatzen eta, hartara, identitate eta interes batzuk taxutzen.

Ezagutza sortze horren testuinguruan hitz egin daiteke «mugimendu intelektual» ere. Ideologo klasikoan antzera, gaur egungo mugimenduetako intelektualek ere nahitaezko eginkizunak betetzen dituzte ekintza kolektiboa orientatze aldera. Horrela, informazio esanguratsua hautatu eta egituratzen dute, zentzua eta forma ematen diote borondate kolektiboari, interesak definitu eta interes horiek publikoki defendatzeko arrazoibide egokiak lantzen dituzte eta, azken finean, ekintza indibiduala eta kolektiboa ulertzeko esanahi-egitura bat ezagutarazten dute. Baina, lan intelektual hori egitean, intelektualek ez dute soilik ekintza kolektiborako beharrezkoa den trinkotze kognitiboan laguntzen, mugimenduaren kideen eta jarraitzaileen trinkotze afektiboan edo emozionalean ere parte hartzen dute. Jasperek gogora dakarren moduan, talka moralek emozio erreflexuak piztu ohi dituzte gizartean, aiurritzkoak, oinarrizko txerazkoak, beldurra, ustekabea edo poztasuna, berbarako (Jasper, 1997); baina, gero, ekintza kolektiboari bidea irekiko dion emozio morala eraikitzeko lan intelektual eta politikoa egin behar izaten da.

Mugimendu intelektualek leku garrantzitsua izan ohi dute egiteko horretan. EMa bera horren adibide ona da. Askotariko egoera eta baldintza soziopolitikoetan ezagutza-adituak sortu dituen mugimendua da; hain zuzen ere, kultur testuinguru aldakorrei egokitutako kontzeptuak eta oihartzun sozial handiko diskurtsoak jorratu dituena, batetik, eta jarraitzaileen elkartasun-loturak egiten eta berregiten jakin duena, bestetik, parte-hartzaile horien sentimenduak, pertzepzioak eta bizi-esperientziak bideratu eta ekintza kolektibo bilakatu arte (Larrinaga, 2007; Larrinaga & Amurrio, 2016; Larrinaga, 2017).

[intelektualak] kohesio sortzaileak esango nuke direla (...) ez da bakarrik alderdi linguistikoa, hortik harago joaten da (...) Identitate sortzaileak dira (E-5).

Mobilizaturiko taldeen barne-kohesioan eragina duten emozioen artean, afektuzko lokarriak dira aztertuenak (Goodwin & Jasper, 2006). Ildo horretan, Sanchez Carriónen proposamenen arrakasta hobeto ulertzen da EMaren 80ko hamarkada amaierako testuinguru emozionala aintzat harturik: zatiketak mugimenduaren kideengan eragindako makalaldia eta galera-sentimendu bortitzak daude haren barnean, baina baita banaketa gainditzearen aldeko itxaropen indartsuak ere. Gogo-aldarte horren testuinguruan, Sánchez Carriónen proposamena, mugimendua baliabide kognitiboz hornitzen duen gogoeta intelektual hutsa baino gehiago, EMaren kohesioa berriz eraikitzeke erreminta bat da. Bada, bi osagai uztartzen ditu. Batetik, hiztun askok bizitako sentimenduak eta emozioak, eta, bestetik, baldintza sozial aldakorretan ekintza kolektiboa bideratzen duen jorraketa intelektual. Hain zuzen ere, euskal hiztunen taldea politikoki eta emozionalki zatiturik dagoen unean, mugimenduaren ekintza ostera ere bideratuko duen subjektu kolektibo berri baten osaketa proposatzen du haren lanak, urraturik geratu den bilbe soziala atzera ehuntzera datorrena.

Euskara sustatzeko Txepetxek egindako proposamena bi oinarritzko ideiatan laburbil daiteke. Lehen ideia da sustapen linguistikoaren subjektua etengabe eraikuntzan dagoen hiztunen erkidegoa dela; ideia horretatik ondorioztatzen du EMak hiztunen komunitateak hartu behar duela euskararen aldeko ekintza kolektiboaren lidergoa, eta ez eragile politikoek. Bigarren ideia da euskararen aldeko ekintza ezin dela oinarritu hizkuntzaren ezagutzan, hiztunek gauzatu beharreko erabileran baizik. Eta erabilera eguneroko bizitzako esparruetan hezurmamitzen denez, harrezkeroztik mugimenduak esparru horietan eta hiztunen jardunean jartzen du arreta-gune nagusia.

[Bildu ziren] energia bat, nahi izate indartsu bat barrenean, esperientzia eta oinarri teoriko batzuk, hausnarketarako joera bat (...) Bazeuden pertsona batzuk hortan ari direnak eta daukate esperientzia urte batzuetakoa, jaten dute oinarri teoriko batzuetatik, eta oinarri teoriko horiek eta beraien bizipenek oso konkordantzia handia dute: hori da nik sen-

titzen detena! hau da nik egin nahi detena!, ez? Orduan, horrek izugarriko energia du (...) horrek hizkuntza komunitatea artikulatzeko balio izan du, iritzi politiko diferenteetako jendea aritzeko toki izan da (E-7).

Proposamen horietatik abiatuta, autonomiaren osteko baldintza sozio-politikoei hobeto egokituriko interpretazio-markoa sortzeko parada eman zion EMari Sánchez Carriónen planteamenduak, agertoki berriak eskaintako aukeren egiturari erantzuteko aproposa. Horrez gain, zisma politikoak mugimenduan eragindako haustura emozionala gainditu ahal izateko bidea ireki zion. Irtenbide horrek, hiztunen artean etenda geratu ziren elkartasun-loturak ostera ere eraikitzea eskatzen zuen. Hala, Sánchez Carriónen proposamenak bereganaturik, euskal hiztunen komunitatea antolatzen eta trinkotzen bideratutako ekintzek hartu zuten lehentasuna mugimenduan hurrengo urteetan. Ildo horretan, batasuna eta txerazko lotura berriro osatzeko deiak egin zituen EMak. Instituzionalizazio autonomikoaren ondorioz mugimenduan sortutako zauri emozionalak ixteak berarekin dakar, jakina, eskabide politikoak eta instituzio autonomikoekiko konfrontazio-estrategiak albo batera uztea, mugimenduaren paralisia gainditu ahal izateko bide gisa.

Esango nuke bi mundu sortu zirela. Lehen homogenea zena (...) bi zatitan (...). Eten horrek, indarrak metatu baino, esango nuke anulatu egin zituela. Horrek sortu du eztabaida asko, borroka asko ... Orduan, hain egoera ahulean zegoen hizkuntza bati horrelako borroka esparru bat zabaltzen bazaio, indarrak enfrentatu eta anulatu egiten dira (...) Eta horren antidoto edo ukendu miragarri gisa, etorri zen Txepetx-en teoria (E-10).

Ildo horretan, *AED, Arrasate Euskaldun Dezagun* elkartearen esperientzia arrakastatsuari jarraiki, mugimenduaren sektore handi bat tokiko elkartearen sorreran eta jardueran aritu zen 1990eko hamarkadan. Horiek horrela, gora egin zuen garai horretan tokian tokiko euskal hiztunen erkidegoa antolatzen eta hari zerbitzuak eskaintzen bideratutako elkartearen kopuruak. Erreibindikazioan oinarritutako ekintza politiko gatazkatsuak desagertu ez baziren ere, arian-arian leku handiagoa irabazi zuten tokiko gobernuekin lankidetzan garatutako «hizkuntza-planak» gauzatzen zuzendutako ekintzek. Nolanahi ere, mugimenduaren beraren despolitizazio-prozesu bati esker baino ezin izan zen mamitu bira hori. Bestalde, despolitizazioaren logika horretan, organiko ez baina bai identitatez eta modu sinbolikoan euskal unibertso nazionalistarekin zituen lokarrien disoluzio diskurtsiboa ere gauzatu behar izan zuen mugimenduak (Larrinaga, 2007; Abad, Cerrato, Gatti, Martínez de Albeniz, Pérez-Agote & Tejerina, 1999). Izan ere, mugimenduaren eledunek ziotenez, euskarak gizarte osoaren ondare eta helburu komuna behar izan izan, eta, horretarako, ideologia politikoaren eta alderdikarien ginetik eratutako adostasunak ehundu behar ziren.

Nabari denez, interpretazio berriak bestelako esanahia ematen zion «auzi linguistiko» delakoari, auzi hori marko ez politiko batean kokatu ahal izateko. Signifikazio lan hori autonomia kulturalaren izenean egin zen, besteak beste, euskararen eta euskal nazioaren arteko ohiko identifikazioari uko egiten dion diskurtsoa garatuta. Mugimenduaren kideen garaiko adierazpen idatzietan agertzen den bezala, hiztun guztien lehentasunezko ondare izatera igaro behar du euskarak, edozein delarik haien kokapen politikoa. Hain zuzen ere, hizkuntza partekatzeak sortzen baitu identitate sozial nagusia, zentrala, euskara-hiztunentzat beste identifikazio sozial eta politikoen gainetik dagoena, EMaren diskurtso eraberrituaren arabera.

(Hizkuntza) normalizatzea hizkuntza komunitatea berez dagokion izaeraz osatzea da, hau da, organismo biziduna, irekia eta hazten doana. Eta ez alderdi politiko edo botere-elite jakin baten esparru gaixobera den organismo itxi modura (Sánchez Carrión, 1987).<sup>5</sup>

Euskalgintza ez da euskaragintza, euskalgintza ezinbestean komunitate bati lotzen zaio (...) ez bakarrik hizkuntzari (E-5).

Hiztunen batasunaren premiaz gain, bigarren ideia bat ere nabarmentzen da Sánchez Carriónen planteamenduan: euskal hiztun indibiduala kontzientziatzeko eta engaiatzeko beharra. Ideia horrek ere perspektiba aldaketa ekarri zuen EMaren diskurtso-formulaziora. Izan ere, ordura arteko marko diskurtsibo nagusian egiturazko faktore objektiboek esleitu zitzaizkien euskararen egoeraren erantzukizuna; hala nola, marko juridikoaren hertsapenei, hizkuntzaren ofizialtasunik ezari eta hizkuntza politika egokien gabeziari. Interpretazio-marko horren aurrean, eta gero eta indibidualizatuagoa zen eredu sozialarekin bat eginda, esparru subjektibora higitu zuen erantzukizunaren ardatza interpretazio berriak. Hortaz, hiztuna eta haren kontzientzia eta motibazioa daude orain mugimenduaren arreta-gunean, aldaketa linguistikoa lortze aldera.

Hain zuzen ere, hiztunen motibaziozko estimuluak dauzkan inplikazio kognitiboak eta emozionalak hartu behar izan zituen aintzat mugimenduen diskurtsoak interpretazio-marko berrian. Ezin da ahaztu hiztun horien ekintzek izan behar dutela, azken finean, hiztunen komunitatearen eraikuntzaren abiaburua. Bada, hizkuntza normalizatuaren barnean mamitzen diren interakzioetan ez bezala, sozialki gutxiturik dagoen hizkuntzari dagokionez, sarritan harremanetan dauden hiztunen arteko kontsonantzia afektibo maila handia behar izaten da interakzio linguistikoan, baita hizkuntzarekiko identifikazio positiboa ere. Hizkuntza gutxituaren hiztun guztiak elebidun direla

---

<sup>5</sup> Jatorrizko testua: *Normalizar [la lengua] es constituir a la comunidad lingüística como lo que, por naturaleza, le corresponde ser: un organismo vivo, abierto y en crecimiento. Y no un organismo cerrado, coto enfermizo de un partido político o de una élite de poder* (Sánchez Carrión, 1987: 218).

aintzat harturik, emozio positibo horiek egon ezean truke linguistikoak hizkuntza nagusian gauzatzeko joera izaten du. Eta, alderantziz ere, truke linguistikoan izandako esperientzia arrakastatsuak motibaziozko indarra eman diezaioke hiztunari interakzio linguistiko berriei hasiera emateko.

Aipatu diren proposamen horiek guztiak beren diskurtsoan integraturik, 90eko hamarkadatik aurrera mugimenduaren interpretazio-markoaren birak alderdi askotako metamorfosia ekarri zuen ekintza kolektibora. Hona hemen alderdi batzuk. Lehentasunezko eskala geografikoa eta soziala aldatu egin zen mugimenduaren jardun-guneari dagokionez. Izan ere, organizazio askoren jardueraren esparrua Euskal Herritik tokiko agertokietara lekualdatu zen. Era berean, esparru makro-sozialean mamitutako ekintza nabarmenki politikoa eguneroko bizitzako mikro-espazioetan buruturiko ekintza kultural bilakatu zen, baita, gero eta gehiago, ekintza tekniko ere. Aldaketa horrek lankidetzat ahalbidetu zuen konfrontazioaren orde, edo, kasurik txarrean ere, botere lokalaren eta autonomikoaren onarpen formala. Alderdi linguistikoari dagokionez, mugimenduaren arreta-gunea euskararen *corpus*etik estatusera igaro zen, eta euskararen ezagutzatik benetako erabilerara. Hori dela eta, mugimenduak ez zuen dagoeneko nahikotzat jotzen hizkuntzari buruzko atxikimendu sinbolikoa. Kontrara, eguneroko komunikazio-ekintzetan hizkuntza-praktika gauzatzeko deia egiten zien mugimenduak etengabe hitzunei.

Hartara, hizkuntzaren erabileraren esparruetan eskuhartze planifikatua gauzatzera, eta esparru horietan kausa linguistikoaren aldeko hiztunaren motibazioa eta uztardura afektiboa sustatzera bideraturik egon da harrezkeroztik EMaren ekintza: hiztunak bere bizitza garatzen duen lekuetan esku hartuta (herrian, auzoan, lantokian eta aisialdi-guneetan) eta hiztunak egunerokoan hizkuntzaren bitartez burutzen dituen ekintzetan eraginda (senide eta lagunekiko harremanetan, kirolean, erosketetan, egunkariaren edo hedabideen kontsumoan). Hain zuzen ere, eguneroko bizitzako mikro-espazio horiek konkistatzea eta, hiztunaren konplizitate baliatuta, haren egunez eguneko hizkuntza-egitate txikiak arau linguistiko nagusiaren aurkako ekintza bihurtzea, horiexek izan dira mugimenduaren eginkizunak marko berrian.

## **5. Zauriak itxi nahian. Hitzunen arteko elkartasuna trinkotzen eguneroko bizitzako esparruetan**

Aldaketa soziala eta gizartearen eguneroko bizitzako esparruak kontrajarritako kontzeptuak izan dira oraintsu arteko azterketa soziologikoan. Izan ere, esparru horiei zegokien ohituren egonkortasuna eta praktika sozialen errepikapena. Eguneroko bizitzari buruzko ohiko azterketa soziologikoek luzaroan azpimarratu dutenez, pertsonak eskura daukaten ezagutza arruntari esker gauzatu ahal izaten dituzte eguneroko praktikak euren bizitza sozialean. Ezagutza horiek zentzu komunean munduan ohikoak diren tipifikazioz



eta ekintzarako errezetaz osaturik egoten dira, ez dira inondik ere ezagutza landuak izaten (Adler, Adler & Fontana, 1987; Shutz, 1993; Berger & Luckmann, 1986). Era horretan, azterketa horiek birsorkuntza sozialaren berezko eremutat hartu dute eguneroko mundu intersubjektiboa, eremu horietan pertsonak uzkur agertzen baitira beren betiko ohitura errepikatuetatik at jardunez, ohitura horiek aldatzeko. Era berean, gune sozial horietan gauzatzen den pertsonen arteko interakzioaren oinarri kognitiboan jarri dute arreta aipatu azterketek; hau da, ezagutza arruntaren dimentsioan, eta ez haien harremanetan emozioek izan dezaketen eraginean.

Azken hamarkadetan, ordea, ekintza kolektiboari eta mugimendu sozial berriei buruzko proposamen teorikoekin batera, irauli egin da aldaketa sozialari buruzko ikuskera. Izan ere, aldaketa sozialak gizartearen egiturazko esparruetan ez ezik eguneroko bizitzako eremuetan ere mamitu daitezkeela planteatu da teorizazio berrietan. Ekintza kolektiboaren eredu berriak aztertu dituzten lan batzuetan adierazten da gaur egungo gizarte konplexuetan gatazkek sistema ekonomikoaren ohiko agertokia gainditu dutela dagoeneko, eta esparru kulturalera hedatu direla. Horrela, gatazka horiek eremu berriak inbaditu dituzte, hala nola, identitate pertsonalak eta kolektiboak, pertsonen eguneroko bizitzako espazioak eta denborak, ekintzaren patroiak eta motibazioak. Gertakari horiei erantzunez, berrikuntza kulturalari lotutako praktikak esperimentatzen dituzten taldeak sortu dira Bigarren Modernitatearen garaiotan, eredu sozial dominanteen aurkako desafio sinbolikoan kode kultural berriak abian jartzen dituztenak ekintza kolektiboaren bitartez (Melucci, 1999).

Aldaketa sozialari buruzko ikuspegi berri horiei dimentsio emozionalaren azterketa gehitu zaie berriki. Hala, emozioei buruzko azterketa ekintza kolektiboaren esparruan aplikatzean, agerian geratu da eguneroko bizitzako esperientzietan txertatutako praktika sozial berritzaileek berekin dakartzatela identitate-eraikuntza prozesuak, zentzu esleipenak eta bestelako mekanismo kulturalak, eta horietan denetan indar handiz eragiten dutela bizitza intersubjektiboaren osagai emozionalek, bai indibidualek bai kolektiboek.

Bestalde, aldaketa sozialari buruzko gaur egungo ikuskerak egitura sozialaren eta pertsonen eguneroko bizitzaren arteko harremanak beste modu batean ulertzea eskatzen du. Ildo horretan, egitura sozialaren eta eguneroko bizitzako mundu intersubjektiboaren artean egin ohi den bereizketa analitikoak ez du esan nahi egiturazko harremanak pertsonen eguneroko interakzioetik at daudenik. Aitzitik, presente daude, modu nabarmenean egon ere. Bereziki, botere- eta estatus-asimetriei lotutakoak. Era berean, egunez egun bizitza intersubjektiboan adierazten diren emozioek ere egiturazko ainguraketa dute. Kemperek argiro azaltzen duenez, emozioei buruzko hurbilketa estrukturalak ikusten uzten digu hainbat eta hainbat emozio harreman sozialen emaitza —errealak, gogoratua, aurreikusia, imajinatua...— izan ohi dela (Kemper, 2001, 2006). Oro har, emozio positiboak estatusaren eta boterearen

jabetzarekin batera agertu ohi dira. Eta, alderantziz, haserrea, lotsa, etsipena, antsietatea, sumindura eta antzekoak, baliabide sozial horien gabeziak sorturikoak izan ohi dira eta, ondorioz, asimetria sozialen pertzepzioak eraginda-koak. Ildo horretan, jakina da mugimendu sozialak bidegabekeriaren hautesmatetik jaiotzen direla, eta, orokorrean, edozein motatako gabezia sozialari loturik dauden sentimenduetatik (Kemper, 2001), dela gabezia materiala dela sinbolikoa. EMA ez da salbuespena.

Euskal hiztunek beren eguneroko bizitzan gauzatzen dituzten hizkuntza-praktikak eraldatzera bideraturiko ekintza mota bat sustatu du azken urteetan EMaren organizazioen zati handi batek, jakinda praktiken atzean euskal hiztunek barneratu dituzten hizkuntzei buruzko ideiak, sinesteak eta irudikapen partekatuak daudela. Baita emozioak ere. Horrela, hizkuntzen arteko kontak-tua dagoen egoeran, truke linguistikoak zuzentzen dituen arau nagusia ikusgarri egin nahi izan du mugimenduaren ekintzak. Izan ere, inon idatzirik egon ez arren, eraginkortasun handiz jarduten du arau linguistikoak hiztunen buruan; arau horren eraginez, besteak beste, balio positiboa eransten zaio hizkuntza nagusiari, eta baliogabetu egiten da hizkuntza minorizatua. Arauak, jakina, osagai kognitiboak eta emoziozkoak dauzka. Ondorioz, hizkuntza gutxituaren erabilerari dagokionez, gutxiagotasun-sentimenduak, lotsak eta segurtasunik ezak sorrarazten ditu sarritan hiztun izan daitezkeen pertsonen baitan. Jarrera linguistikoetan emozionalki sustraiturik egonik, kontaktuan dauden hizkuntzen kategorizazioak eta etiketatze sozialek disposizio inkontziente modura funtzionatzen dute, eta, hartara, pertsonen hizkuntza-praktikak baldintzatzen dituzte etengabe. Hain zuzen ere, denboran zehar jarraitua izan den sozializazio informal, lauso eta egunerokoaren eraginez euskal hiztun askok barneraturiko disposizio paralizatzaile horri egin nahi izan dio aurre EMaren ekintzak. Baita disposizio horren osagai emozional negatiboari ere.

90eko hamarkadatik aurrera Euskal Herriko hainbat herritan sortu ziren euskara elkarteek euskararen aldeko mugimenduak frankismo osteko garaian landutako interpretazio-marko berriaren ildo irudikatu dute, zalantzarik gabe. Elkarre horietan hezurmamitu da euskal hiztunen komunitatea elkar-tzeko ahalegina, eta, horrekin batera, hiztun arrunta eguneroko ekintza kontziente eta eraldatzailean inplikatzeko esfortzua. Saio horrek, jakina, lehenago aipatu diren jarreraren aldaketa emozionala eta kognitiboa eskatu du. Horretarako, EMak jabetze-prozesuak, indibidualak eta kolektiboak, bultzatu ditu bere ekimenetan, eta euskararekiko emozio positiboak sortzen ahalegindu da: harrotasuna, autoestimua, konfiantza eta duintasuna.

Beldurrak uxatu, lotsa erauzi, gutxiegitasun ustea erantzi eta duintasuna jantzi... (Lorea Agirrek 19. *Korrikarako* idatzitako mezutik hartuta)<sup>6</sup>

---

<sup>6</sup> Ikus Agirre (2015).

Ildo horretan, tokiko euskara elkarteetan hiztun kontzientziatuenen ekintza kolektiboa sentsibilitate gutxiago duten hiztunen motibazioa aktibatzerazuzendu da, euskararen erabilera lotsa eta menderakuntza sentimenduekin lotzen dutenen eragozpenak gainditu ahal izateko. Modu horretan euskararentzako «bizi espazioak» irabazi nahi izan ditu EMak eguneroko bizitzako interakzio subjektiboetan, hain zuzen ere, hizkuntza-politikek eragiten ez dieten esparru ez formaletan. Esparru horietan hizkuntza-dominazioz jositako harremanak desnaturalizatzeko tresna izan nahi du ekintza kolektiboak, Bourdieuren hizkeran, hiztun arruntaren ekintzak egoera aurre-erreflexibotik ekintza erreflexibora eramango dituen eta arau linguistikoko nagusiak itsatsita daukan indarkeria sinbolikoa agerian utziko duena (Bourdieu, 1991). Ekintza erreflexibo horrek, jakina, hiztun asko berriro ere sozializatzea eskatzen du; alegia, beren hizkuntza *habitus*-a eta hari lotutako disposizio afektiboak beste norabide batean jartzeari, izatez, emozioak ekintzarako prestasunak ere badirelako (Goodwin, Jasper & Polletta, 2001).

Sánchez Carriónen formulazioei jarraiki, 90eko hamarkadatik aurrera mugimenduak jorratzen duen interpretazioarekin bat eginez, tokiko euskara elkarteek beren diskurtsoan jakinarazten dute euskararen etorkizuna ez dagoela soilik goi mailako instantzietan diseinatutako hizkuntza-plangintzetan edo erabakigune politikoetan. Alderantziz, azaltzen dute hizkuntzaren iraupena linguistikoki gauzaturiko ekintza sozial guztietan bermatzen dela eta, beraz, hizkuntza-komunitatearen partaide den hiztun arruntaren gaitasunaren eta borondatearen mende daudela, neurri handi batean, aipatu ekintzak. Horrela, hizkuntza-aldaketaren lorpena hiztun indibidualaren jabetze-prozesua ere bada, hiztunak bere hizkuntza-ohituren kontzientzia hartu behar baitu ohitura horiek nahita beste norabide batean jartzeko; horrekin batera, hiztunak gai izan behar du norabide-aldaketa horrek barnean hartzen duen eraldaketa emozionala kudeatzeko ere.

Hala ere, aldez aurretik taxutu eta berrosatu behar den talde baten barruan gauzatu behar dituzte hiztun indibidualek beren interakzio linguistikoak. Hori dela eta, euskara elkarteek lehenetsitako helburuetako bat tokiko populazioaren barnean euskal hiztunen arteko lotura komunitarioak berre-raikitzea izan da. Hori egiteko, urrats jakin batzuk dauzkan eredu jarri dute abian herriz herri. Eredu horren arabera, hasieran, atxikimenduak lortzeko estrategia sustatzen dute tokiko elkarteek, eta herri bakoitzeko euskal hiztunen taldeko eragile indibidualen eta kolektiboen borondatezko sostenguen bila hasten dira. Lehenengo, beren lanbideen edo bestelako jardueren ondorioz tokiko komunitatean ikusgarritasuna eta prestigioa dauzkaten pertsona kontzientziatuak jartzen dituzte jomugan. Ondoren, hiztun arruntak. Lehen taldeko hiztunek sorrarazten dituzten begirune- eta prestigio-sentimenduak beren praktika linguistikora transferitu nahi dituzte, praktika hori hedatu eta kutsa dadin identifikazio-prozesuen bitartez.

Hasierako atxikimendu horiek atzemanda eta publikoki iragarrita, euskara elkarteek komunitatearen eguneroko bizitzan presentzia duten entitateak inplikatzekeo kanpainak egiten dituzte; hala nola, kirol, kultura eta aisialdiko elkarteak, sozietate gastronomikoak, dendak, tabernak, jatetxeak eta enpresak. Den-denak gonbidatzen dituzte euskararen erabileran konprometitzen dituzten borondatezko hitzarmenak egitera. Akordio horiek ezagutarazi egiten dira herrian; are gehiago, akordioek hiztunen komunitatearen etengabeko berreraikuntza-prozesua irudikatzen eta ikusarazten dute, familiaren, lagunen, auzoaren eta herriaren sozibilitate-sareak berrosatzen diren heinean eguneroko bizitzan. Nabari denez, berregituratutako ehun horiek jatorrizko komunitate afektiboaren errepresentazio sinbolikoak dira. Esan nahi baita, lotura linguistikoaren inguruan ehundutako elkartasun afektiboen baturak osatzen du irudikatutako komunitatea.

Zalantzarik gabe, tokiko euskara elkarten garapenak EMaren instituzionalizazio-prozesua areagotu du. Elkarten antolakuntza-egitura eta ekin-tzarako gaitasuna indarturik geratu zen 1996tik aurrera, *Topagunea* izeneko organizazioaren eraketaren bitartez. Hainbat elkarte eta tokiko hedabidez osaturiko federazio horrek proiektu konplexuagoi ekitea ahalbidetu du gerrora. Hala, zentralizatuago eta profesionalizatuago dagoen egitura horrek tokiko elkarteei zuzendutako zerbitzu komunaren eskaintza bideratzen du zirkuitu jakin batzuen bitartez; esate baterako, kultura-zerbitzuak, ikuskizunak eta era guztietako gertakariak. Arian-arian, euskaraz egituratutako komunikazio-esparru bat eratzen ere utzi die, argitalpenen eta tokiko irrati-nahiz telebista-sare baten bidez. Era horretan, organizazio batzuen ekintza enpresetara ere zabaldu da apurka-apurka.

Hain zuzen ere, proiektu mediatikoen ildoak erakusten duenez, denborekin, senitarte-, auzo- eta komunitate-esparruak baino formalagoak diren arlo sozialetara zabaltzen joan da mugimenduaren organizazio batzuen ekintza. Proiektu horiek abian jartzeak erronka berriak ekarri dizkio EMari. Organizazio formalen konplexutasunaren kudeaketarekin harremanetan dauden desafioak dira, dudarik gabe, baita enpresa proiektuen diseinu, garapen eta finantzaketarekin lotuta daudenak ere. Mugimenduko organizazio batzuek proiektu mediatikoetan eta enpresen hizkuntza-plangintzetan egindako sarrraldiak eragin handia izan du EMaren jardueren etengabeko espezializazioan eta teknifikazioan. Espezializazio hori, aldi berean, mugimenduaren hainbat kide eta parte-hartzailearen profesionalizazioarekin batera etorri da.

## **6. 2000tik aurrera: energia emozionala sortzeko desafioa instituzionalizaturik dagoen mugimenduan**

Ekintza kolektiboa hasierako protestatik eta erreibindikaziotik esku-hartzeko profesionalera higitu duen interpretazio-markoaren eraikuntzak EMaren

ekintza-esparruaren hedapena eta dibertsifikazioa ekarri ditu. Baina, horrekin batera, mugimenduak behinola mobilizatzeko zeukan gaitasuna ere mugatu du. Egiatan, EMaren jardunbidea esparru komunitarioetatik lanaren eta enpresaren munduko esparru formalagoetara hedatzeak jauzi kualitatibo garrantzitsua eragin du. Izan ere, euskararen erabilera lanaren munduan sustatzeko eta euskarazko komunikaziorako esparru publikoa sortzeko asmoz mugimenduak egin dituen esku-hartze planek, hastapenetako esku-hartze komunitarioetan hasi zen profesionalizazio eta teknifikazio progresiboa indartu dute, gero eta gehiago. Bestalde, egitasmo horiek esku-hartze proiektuetara zuzendutako produkzio kognitiboaren hazkunde esponentziala sorrazite dute, baita organizazio-berrikuntzari lotutako ingeniarietza linguistikoa bultzatu ere. Alabaina, EMak bere historian metatutako emoziozko kapitalaren «hozte» erlatiboa izan da garapen horren ifrentzua. Bada, aipatu diren jarduera esparruetan erretorika teknikora eta eraginkortasunezko arazoibideetara egin du jauzi mugimenduaren diskurtsoak eta, hori egitean, alboratu egin ditu, hein batean, hizkuntzari buruzko sentimenezko edo emoziozko deiak.

Iruditzen zait kulturgintzaren kasuan, lehenengo etapetan ideiak garrantzitsuagoak direla teknikak baino (...), sentimenduak eta ideiak. Iguale sentimenduak aurrena eta gero ideiak (...) Gauzak egin ahala, aspektu teknikoa garatzen dihoa (E- 8).

Espezializazio teknikoaren ildoan, mugimenduaren lehenetako jardun-guneetako bat lanaren munduko organizazio formaletan kokatu da azken urteetan. Esparru horretan ezartzearen ondorioz, enpresa-kudeaketan eta gerentzialisismoan berezkoak diren diskurtsoak bereganatu ditu EMak eta, aldi berean, esparru horietatik datozen estrategiak txertatu ditu bere ekintzetan. Jacqueline Urlak nabarmentzen duen bezala, mugimenduaren eginkizun berriak gestio, autoebaluazio eta erabateko kalitateko enpresa-metodoen aplikazioari loturik egon dira (Urla, 2012), mugimenduak beretzat hartutako zeregin horiek eduki berriak eta plan estrategikoak jorrazteko beharra ekarri dituztelako, baita organizazioetako indar-guneak eta ahulguneak identifikatzeko ardura ere. Ildo berean, mugimenduaren erakunde batzuek enpresaren formatua hartu dute, hizkuntza-zerbitzuak eskaintzera bideratutako aholkularitza pribatu edo kooperatiba gisa eraturik. Den-denek eskaintzen dituzte hizkuntza-plangintzak diseinatzeko eta egikaritzeko zerbitzu teknikoak. Horrela, euskal enpresa eta kooperatibagintzaren tradizioan txertatu ahala, merkatuaren eta enpresaren organizazioaren logika barneratzen joan da mugimenduaren zati esanguratsu bat. Bestalde, administratibotik ere indartu izan da mugimenduaren aldaketa-prozesu hori. Izan ere, nabarmen ugaritu dira esparru horretan ere euskararen garapenaren legitimazioa lorpen ekonomikoetan oinarritzen duten diskurtsoak; adibidez, euskararen inguruko jarduerak Barne Produktu Gordinean sortzen duten aberastasuna erakusten dutenak.

EMaren izaera gero eta espezializatuagoak eta teknikoak, batetik, eta mugimenduak bere helburuei esleitutako eraginkortasun profesionaleko dimentsioak, bestetik, mugimenduak berak barne-funtzionamendurako bereganatu dituen organizazio ereduetan ere izan dute isla. Horrela ikusten da mugimenduaren antolakuntza eta koordinazio moldeetan, baita hark gauzatuako proiektuetan ere. *Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluaren*<sup>7</sup> sorrera eta funtzionamendua da horren adibiderik adierazgarriena. Bestalde, aditu eta profesionalen talde garrantzitsua osatu du EMak bilakaera horretan. Elkarrekin bizi diren identitate zatituak eratu dituzte talde horretako kideek beren barnean; ez beti kontraesanik gabe, aktibismoa eta engaiamendu emozionala jardun profesionalarekin uztartzen ahalegindu direnean eguneroko lanean. Hala, militantziaren eta profesionalizazioaren arteko tentsioa, hots, kausa linguistiko-identitarioari zor dioten lotura afektiboaren eta helburu pragmatiko-arrazionalen arteko tenka, ageri-agerian azaltzen da elkarrizketaturiko adituen adierazpenetan. Soslai profesionala gorabehera, elkarrizketatu guztiek nabarmentzen dute beren lanarekin lotzen dituen konpromiso emozionalaren beharra, inbertsio emozional hori *habitus* profesionalak oraindik orain mantentzen duen berezko disposizioa baita.

Militantziaren ikuspegia zentzu positibo batean (...). Lan hau soilik profesionalki bizitzea oso zaila da, norberak jarri behar du plus bat (...), ba bizipoz aldetikan (E-7).

Hala ere, profesionalen jardueratik aparte, mugimenduaren instituzionalizazioari lotutako bira estrategiko eta tekniko horrek ez du erabat baztertu osagai afektiboen erabilera EMaren dinamika orokorrean. Esan nahi baita, identitate kolektiboari eta partaidetza aktibistari lotutako afektuek nahiz kausa linguistikoaren jarraitzaileen arteko elkartasunean inplikaturiko txerazko osagaiak ere hor diraute, osagai horiek modu nabarmenean moteldu diren arren, batik bat diskurtso publikoetan. Herri-partaidetzaren aldeko deiak eta emozio bidezko talde elkartasunari lotutako adierazpenak bideragarriak dira mugimenduaren organizazio gehienetan «injustizia-marakoaren» pertzepzioak indarrean dirauen artean; ikusmolde hori, bestalde, administrazio publikoei zuzendutako eskabideen bitartez elikatzen da periodikoki. Orobat, erreibindikazioaren dimentsio hori ez da, inolaz ere, lehenagotik protesta lehenetsi duten organizazioen ezaugarri eksklusiboa; aitzitik, behin eta berriro azaleratzen da EAEko eta Nafarroako hezkuntzan, osasunerbitzuetan nahiz justizia-administrazioan oraindik dauden gabezien salaketetan.

---

<sup>7</sup> 1997an sortua, *Kontseiluak* osatzen du euskararen aldeko mugimenduaren antolakuntzazko azpiegiturarik garrantzitsu eta konplexuenetakoa, bai erakunde horretan parte hartzen duten organizazioen kopuruaren aldetik, bai metaturiko baliabide ekonomikoen nahiz giza baliabideen aldetik.

Horrela, organizazioetako tekniko kualifikatuek gauzatzen dituzten lan-molde profesionalizatuenen ondoan, inklusiboagoak diren lan-eredu parte-hartzaileagoak ere mantentzera beharturik dago mugimendua. Hain zuzen ere, mugimenduaren ekintzetarako atxikimendua nahiz motibazioa eragingo duen energia emozionala sortzea izan daiteke gaur egun EMa bezalako mugimendu instituzionalizatu batek daukan desfiorik handienetakoa. Bestek beste, kulturalki eta linguistikoki askotarikoa den testuinguruan hiztun-komunitatearen barne-elkartasuna indartzea, eta euskal hiztunei harrotasun sentimendua helaraztea, gero harrotasun hori beren praktika linguistikoe-tan isla dadin, ezinezkoa litzateke mugimenduak etengabe afektuz hornituko ez balitu bere diskurtsoak eta praktikak. Ildo horretan, bere argitalpenen eta kultura-ekintzen bitartez, baita euskal hiztunek bizi dituzten bidegabekeri- salaketen bitartez ere, aipaturiko «injustizia-markoaren» pertzepzioari indar-rean eusten laguntzen du mugimenduak. Halako marko batek haserrea eta elkartasuna elikatzen ditu eta, ondorioz, bizirik eusten dio ekintzarako moti-bazioari mugimenduaren jarraitzaileen artean.

Birsortze lan hori errazten duten baliabideen artean, aldi behin mobi-lizatzeko eta elkartzeko egin ohi den deia da nabarmenetakoa. Gorputzen el-kartze fisikoa era guztietako ekintza kolektiboen oinarrietako bat da, mugimendu orotan gorputz mobilizatuak daukaten garrantziaren seinale (Sossa Rojas, 2013). Era berean, gorputzen elkartze horrek emozioak azaleratzen laguntzen du (Scribano, 2012). Hala ere, EMaren gaur egungo mobilizazioa errituala izaten da gehienetan, eta ez berezkoa. Horrela, erakunde formalez eta profesionalen harago, herri-ekintzaren bidez adierazten den euskararen aldeko mugimenduak erritual jakin batzuk tartean direla jasotzen du jende-tzaren atxikimendua. Erritual horiek aldi berean erreibindikaziorako eta jai-al-dirako tartek izan ohi dira, eta jendetzak biltzen dituzte maiztasun jakin ba-tekin egindako bilkura kolektiboetan. *Korrika*, ikastolen aldeko jaialdiak eta, neurri batean, bertso-txapelketak izan ohi dira erritual horien adierazpenik esanguratsuenak, euskal lurralde guztietan fisikoki gauzatzen direnak.

Erreibindikazio-jaialdiak «interakzio-erritualak» izaten dira (Collins, 2001). Euskararen inguruko ekintza koordinatu batean gorputzez eta senti-menduz elkartzen den jendetza biltzen da erritual horietan. Orobat, mugit-zen ari diren pertsonen osatzen dituzte euskararen aldeko elkarretaratzeak. Dimentsio ludiko garrantzitsua daukaten mobilizazio horiek «protestaren plazeraren» adibide dira, gozamen horrek mugimenduen dinamikan eragiten dituen onuren adierazle (Poma & Gravante, 2013). Collinsen ustetan, in-terakziozko erritual oro oinarrizko bi dimentsioren inguruan mamitzen da: arreta-gune komun baten tamaina (*mutual focus*) eta parte-hartzaileen artean sortutako afektuzko kontsonantziaren neurria (*emotional entrainment*), hain zuzen ere (Collins, 2001; 2009). Arreta-gune komuna eta kontsonantzia afek-tiboa intentsitate handikoak direnean, aipatutako jai itxurako EMaren el-karretaratzeetan gertatzen den bezala, prozesu indartsuak eragiten dituzte

parte-hartzaileen artean. Bada, pertsona horiek esanahi kulturalaz eta motibaziozko indarrez beteriko esperientzia kognitiboak eta emozionalak bizi izaten dituzte, behin baino gehiagotan, eragin iraunkorrek eduki ohi dituztenak.

Izan ere, errituala gauzatzen den uneko asaldura kolektiboaz harago, ondoreneko prozesua ere interesgarria da EMarentzat. Hala, emozionalki energia-hornitzaileak diren erritualetan pertsonari inokulatzen zaien indar bat sortzen da; energia emozional gisa metatutako indar hori interakzio sozialaren beste denbora eta egoera batzuetara eraman dezakete banakoek gero. Hain zuzen ere, energia emozionala denbora batez irauteko eta, hartara, beste egoera sozial batzuetara desplazatzeko gai izan ohi da. Horrenbestez, ekin-tzarako gogoberotasun-sentimendu baten jabe izanik, batetik, eta, bestetik, komunitateari buruzko lotura afektiboa sendotu duenaren konfiantza berreskuraturik, erritualean parte hartutakoek taldean sortutako emozioa eraman dezakete denbora batez berengan (gorputzetan, afektuetan eta kognizioetan) eta emozio horietaz elika daitezke geroko ekintzak burutu ahal izateko. Horiek horrela, erritualaren eta ondorengo praktika sozialen arteko zubi-lana egiten dute jendetzaren elkarretaratzean bizi izandako emozioek. Era berean, partekaturiko emozio horiek ahalbidetzen dute, neurri batean, hiztun indibidualen ahalduntze-prozesua.

Aterpeak eraiki, taldeatasuna josi, eremu askeak sortu. Eskatu, galdegin, eman. Gozatu, poztu. Eragin, eraiki, ibili, erabili (...) Nor gara? Bagara nor. Ez gara menpeko perpausa. Menpeko izateari utzi, eta ahalduntzea da kontua. Euskaldun gisa ahalduntzea, herritar gisa ahalduntzeko. Jabetzea. Boteretzea. Autodeterminatzea (...) Kontua ekitea da. Eta nor izatea, herri hau euskaraz eta euskaratik arnas berriz sortu, bersortu eta ahalduntzeko (Agirre, 2017).

Aski ezaguna da ekintza kolektiboetan oin hartzen duten erritualek emozio moralen eta leialtasun afektiboen berrikuntzan daukaten eragina (Fernández Poncela, 2013). EMaren jai erreibindikatzailaiek ageriko funtzio ekonomikoa duten arren, ikusgarritasun gutxiago daukan funtzio sinbolikoa betetzen dute, *de facto*. Motibazioen eta emozioen ikuspegitik azken eginkizun horrek itzelezko garrantzia hartzen du. Bada, mobilizazio-gertakariak jarraipeneko sarea ehuntzen dute mugimenduaren lehenagoko erreibindikazio ereduarekin. Modu horretan, instituzionalizaturik eta profesionalizaturik dagoen gaur egungo mugimendua eta iraganekoa lotzen dituzte hari berean, eta, jarraitutasun horretan, haren memoria historikoa eguneratzen laguntzen dute. Halaber, erritualek elkartasun emozionalaren eta partaidetzaren zentzua ematen diote mugimenduari eta, mugimenduaren bitartez, euskal hiztunen komunitateari.

Metafora bat da *Korrika*. Izan nahi duen herriaren metafora (...) *Korrika* beste denbora bat da, denboraren lerroaren barnean. Beste espazio bat, espazioaren barnean. Aldi berean da herri fisikoa, eskutan lurra



nola, eta, aldi berean, da harizko herria, une oro lekukoaren bidearen irudian bizi arazten zaituena; eta, aldi berean, da herri sinbolikoa, iruditeria hori beste milaka lagunekin partekatzen duzula jakin badakizulako, besteak ez ikusiagatik, ez ikutuagatik, elkar ez ezagutuagatik. *Korrika* parentesi bat da, *continuum* bat, jarraikortasun bat (...) *Korrika* gorputz geografiko eta emozionala da (Lorea Agirrek 19. *Korrikarako* idatzitako mezutik hartuta).<sup>8</sup>

Emozio hori, jakina, ezin izango lukete eragin mugimenduaren dimentsio teknikoak eta enpresarialak. Hartara, era askotako eraginak dituzte EMaren inguruan aldiro ospatzen diren erritual kolektiboek. Besteak beste, komunitateari buruzko partaidetza afektiboaren sentimendua indartzen dute, komunitate horri esleituriko askotariko esanahien arabera —dela hizkuntza-komunitatea, komunitate kulturala edo nazio-komunitatea, besteak beste; moralitate-sentimenduak hedatzen laguntzen dute jarraitzaileen artean, esanez zein den egin beharreko zuzena taldeari dagokionez eta zer nolako leialtasuna zor zaion taldeari; eta, batik bat, emozio handi bat transferitzen diete bildutako pertsoneri, eguneroko bizitzako egoera ez hain mesedegarrietan hizkuntzaren aldeko beren aktibismoaren desafioei aurre egiten lagunduko diena. Ildo horretan, energia emozional hori hizkuntza-praktiken indar eraldatzaile bihur liteke.

## 7. Konklusioak

Beste mugimendu sozial batzuetan gertatzen den bezala, EMak ere aldi berean kognitiboa eta emozionala den ekintzarako testuinguru bat osatzen du. Bi dimentsio horiek lotu-loturik agertzen dira, eta denboran zehar mugimenduak bere diskurtsoak enmarkatzeko egindako prozesuetan azaleratu dira. «Auzi linguistikoari» eta haren kausa-esleipenari buruz sortu dituen era askotako definizioen oinarrian agertzen dira etenik gabe. Hala, interpretazio-marko desberdinen eraikuntza-prozesuek esanahien produkzio-lana ekarri dute. Sortutako diskurtsoen atzean motibaziozko oinarria osatzen duten testuinguru emozional jakinak daude; testuinguru horiek barik ezin dira ulertu euskararen aldeko mugimenduak landutako ondoriozko ekintza moldeak ere. Ezagutzek eta emozioek, den-denek hartzen dute zentzua euskal gizarteak azken urteetan bizi izandako aldaketa sozialen eta politikoen argitara; izan ere, mugimenduak aldaketa horietara egokitzeko bizi izandako esperientzia gorabeheratsuaren isla dira.

EMaren ekintzaren motibaziozko bulkadaosatzeaz gain, EMaren barnekohera faktore eragile moduan agertzen dira emozioak, azken horiei dei egiten baitzaie gatazka uneetan. Mugimenduaren parte-hartzaileei eta, oro

---

<sup>8</sup> Ikus Agirre (2015).

har, mugimenduak ordezkatu nahi dituen euskal hiztunei eman zaien komunitate-izaerak lotura afektiboan oinarrituriko eraikuntza eskatu dio mugimenduari, nahitaez. Bereziki EMA bezalako iraupen handiko mugimendu instituzionalizatu eta profesionalizatu baten bizia ezin da ulertu osagai emozionalaren eta afektiboaren aktibaziorik gabe. Hain zuzen ere, osagai horiek mugimenduaren organizazioen mugak gainditu dituen herri-atxikimendua eta leialtasun sentimendua ziurtatzen lagundu diote. Hitz batean, haren indar moralaren iturri izan dira, eta, hartara, mugimenduaren ekintza kolektiboaren eraginkortasunaren berme.

## Erreferentzia bibliografikoak

- Abad, Begoña; Cerrato, Javier; Gatti, Gabriel; Martínez de Albeniz, Iñaki; Pérez-Agote, Alfonso & Tejerina, Benjamin (1999), *Institucionalización política y reencantamiento de la socialidad. Las transformaciones en el mundo nacionalista*. Vitoria-Gasteiz: Gobierno Vasco.
- Adler, Patricia; Adler, Peter & Fontana, Andrea (1987), «Everyday Life Sociology». *Annual Review of Sociology*, vol. 13, 217-235. <http://dx.doi.org/10.1146/annurev.so.13.080187.001245>
- Agirre, Lorea (2017), «Metaforak eta armagabetzeak». *Berria* egunkaria (2017/04/09). [http://www.berria.eus/paperekoa/2011/016/001/201709/metaforak\\_eta\\_armajabetzeak.htm](http://www.berria.eus/paperekoa/2011/016/001/201709/metaforak_eta_armajabetzeak.htm)
- Agirre, Lorea (2015), «19. Korrikako mezua». *Berria* egunkaria (2015/03/30). [http://www.berria.eus/albisteak/109510/19\\_korrikako\\_mezua.htm](http://www.berria.eus/albisteak/109510/19_korrikako_mezua.htm)
- Benford, Robert & Snow, David (2000), «Framing Processes and social Movements: An Overview and Assessment». *Annual Review of Sociology*, vol. 26, 611-639. <http://dx.doi.org/10.1146/annurev.soc.26.1.611>
- Berger, Peter & Luckmann, Thomas (1986), *La construcción social de la realidad*. Buenos Aires: Amorrortu.
- Bourdieu, Pierre (1991), *Language and Symbolic Power*. Harvard University Press.
- Bourdieu, Pierre (1997), *Razones prácticas. Sobre la teoría de la acción*. Barcelona: Anagrama.
- Calhoun, Craig (2001), «Putting Emotions in their Place». In J. Goodwin, J. Jasper & F. Polletta (arg.), *Passionate politics: emotions and social movements*. Chicago: The University of Chicago Press, 45-57 or.
- Camps, Victoria (2011), *El gobierno de las emociones*. Barcelona: Herder
- Collins, Randall (2001), «Social Movements and the Focus of Emotional Attention». In J. Goodwin, J. Jasper & F. Polletta, (arg.), *Passionate politics: emotions and social movements*. Chicago: The University of Chicago Press, 27-44 or.
- Collins, Randall (2009), *Cadenas rituales de interacción*. Barcelona: Anthropos.
- Connor, Walker (1998), *Etnonacionalismo*. Madrid: Trama Editorial.
- Damasio, Antonio (2006), *El error de Descartes: la emoción, la razón y el cerebro humano*. Barcelona: Crítica.
- Duperré, Martine (2008), «La rationalité des émotions dans les processus de mobilisation collective». *Service Social*, vol. 54, n° 1, 67-81 or. <http://dx.doi.org/10.7202/018344ar>

- Epstein, Steven (1998), *Impure Science. AIDS, activism and the politics of knowledge*. Berkeley: University of California Press.
- Eyerman, Ron & Jamison, Andrew (1991). *Social Movements. A Cognitive Approach*. Pennsylvania: The Pennsylvania State University Press.
- Fernández Poncela, Ana María (2013), «Movimientos y sentimientos». *Revista Latinoamericana de Estudios sobre Cuerpos, Emociones y Sociedad* 13, año 5, 35-50.
- Gamson, William (1992), *The Social Psychology of Collective Action*. In A. Morris & C. Muller (arg.), *Frontiers in Social Movement Theory*. New Haven, London: Yale University Press, 52-76 or.
- Goodwin, Jeff; Jasper, James M. & Polletta, Francesca (2001), «Why Emotions Matter». In J. Goodwin, J. Jasper & F. Polletta, (arg.), *Passionate politics: emotions and social movements*. Chicago: The University of Chicago Press, 1-24 or.
- Goodwin, Jeff & Jasper, James M. (2006), «Emotions and Social Movements». In J.E. Stets & J. H. Turner (arg.), *Handbook of the Sociology of Emotions*. New York: Springer, 611-635 or.
- Gross, Daniel M. (2006), *The secret history of emotion*. Chicago: The University of Chicago Press.
- Gurruchaga, Ander (1985), *El código nacionalista vasco durante el franquismo*. Barcelona: Anthropos.
- Hunt, Scott; Benford, Robert & Snow, David (1994), «Marcos de acción colectiva y campos de identidad en la construcción social de los movimientos». In E. Laraña & J. Gusfield (arg.), *Los Nuevos Movimientos Sociales. De la ideología a la identidad*. Madrid: CIS, 211-249 or.
- Jasper, James M. (2012), «¿De la estructura a la acción? La teoría de los movimientos sociales después de los grandes paradigmas». *Sociológica* (Méx.), vol 27 n.º 75. México ene/abr. 2012, 7-48.
- Jasper, James M. (2011), «Emotions and Social Movements: Twenty Years of Theory and Research». *Annual Review of Sociology*, volume 37, 285-304. <http://dx.doi.org/10.1146/annurev-soc-081309-150015>
- Jasper, James M. (1998), «The Emotions of Protest: Affective and Reactive Emotions In and Around Social Movements». *Sociological Forum*, 13, 397-424. <http://dx.doi.org/10.1023/A:1022175308081>
- Jasper, James M., (1997), *The Art of Moral Protest*. Chicago: Chicago University Press.
- Kemper, Theodore D. (2006), «Power and Status and the Power-Status Theory of Emotions». In J. E. Stets & J. H. Turner (arg.), *Handbook of the Sociology of Emotions*. New York: Springer, 87-113 or.
- Kemper, Theodore D. (2001), «A Structural Approach to Social Movement Emotions». In J. Goodwin, J. Jasper & F. Polletta, (arg.), *Passionate politics: emotions and social movements*. Chicago: The University of Chicago Press, 58-73 or.
- Lara, Alí & Enciso Domínguez, Giazú (2013), «El Giro Afectivo». *Athenea Digital*, 13(3), 101-119. <http://dx.doi.org/10.5565/rev/athenead/v13n3.1060>
- Larrinaga, Ane (2007): *Euskal kulturgileak Euskalgintza mugimenduaren eraikuntzan*. Donostia: Utriusque Vasconiae.
- Larrinaga, Ane; Amurrio, Mila (2016): «The Ethno-linguistic Movement and Linguistic Self-determination in Euskara». In P. Ibarra & A. Kolas (arg.), *Basque Nationhood. Towards a Democratic Scenario*. Oxford: Peter Lang, 83-119 or.
- Larrinaga, Ane (2017): «Euskararen aldeko mugimenduaren bilakaera. Interpretaziorako proposamen bat». *Anuario de Eusko Folklore. Eusko Folklore Urtekaria*. Jose Miguel de Barandiaran Fundazioa, 51/2015-2017, 55-58 or.

- Latorre, Marta (2005), «Los movimientos sociales más allá del giro cultural: apuntes sobre la recuperación de las emociones». *Política y Sociedad*, vol. 42 n.º 2, 37-48. [http://dx.doi.org/10.5209/rev\\_POSO.2005.v42.n2](http://dx.doi.org/10.5209/rev_POSO.2005.v42.n2)
- Le Breton, David (2013), «Por una antropología de las emociones». *Revista Latinoamericana de Estudios sobre Cuerpos, Emociones y Sociedad* nº 10, año 4, 69-79.
- Maiz, Ramón (2010), «La hazaña de la razón: la exclusión fundacional de las emociones de la teoría política moderna». *Revista de Estudios Políticos* (nueva época) 149, Madrid Julio-Septiembre 2010, 11-45. <http://dx.doi.org/10.18042/cepc/rep>
- Martínez de Luna, Iñaki (2010), «Framing: komunikazio teoretatik euskararen beharizanetara». *BAT. Soziolinguistika Aldizkaria* 76 (3), 53-67.
- Mees, Ludger (2015), «Emociones en política. Conceptos, debates y perspectivas analíticas». In G. Galeote, M. Lombart Huesca & M. Ostolaza (arg.), *Emoción e identidad nacional: Cataluña y el País Vasco en perspectiva comparada*. Paris: Éditions Hispaniques, 25-45 or.
- Melucci, Alberto (2001), *Vivencia y Convivencia. Teoría Social para la Era de la Información*. Madrid: Trotta.
- Melucci, Alberto (1999), *Acción colectiva, vida cotidiana y democracia*. México: El Colegio de México.
- Muriel, Daniel (2017), «El entramado experto en la construcción de identidades en la contemporaneidad». *Política y Sociedad*, 54(1), 143-161 or.
- Odriozola, Joxe Manuel (2004), *Euskalgintzaren lekukoak*. Donostia: Elkar.
- Pérez-Agote, Alfonso (1984), *La reproducción del nacionalismo. El caso vasco*. Madrid: CIS.
- Poma, Alice; Gravante, Tommaso (2013), «Emociones, protesta y cambio social. Una propuesta de análisis». *Revista Latinoamericana de Estudios sobre Cuerpos, Emociones y Sociedad* 13, año 5, 21-34.
- Sánchez Carrión, José M.<sup>a</sup> [Txepetx] (1987), *Un futuro para nuestro pasado*. Donostia.
- Scribano, Adrián (2012), «Sociología de los cuerpos/emociones». *Revista Latinoamericana sobre Cuerpos, Emociones y Sociedad* 10, año 4, 93-113.
- Shutz, Alfred (1993), *La construcción significativa del mundo social*. Barcelona: Paidós.
- Snow, David & Benford, Robert (1988), «Ideology, Frame Resonance and Participant Mobilization». In B. Klandermans, H. Kriesi & S. Tarrow (arg.), *From Structure to Action*. International Social Movement Research I. Greenwich: JAI PRESS, 197-217 or.
- Snow, David & Benford, Robert (1992). «Master Frames and Cycles of Protest». In A. D. Morris & C. Mueller (arg.), *Frontiers in Social Movement Theory*. New Haven, London: Yale University Press, 133-155 or.
- Sommier, Isabelle (2015), «Sentiments, affects et émotions dans l'engagement à haut risque». *Terrains/Théories* 2, 2015. Hemen eskuratua: <http://teth.revues.org/236>; <http://dx.doi.org/10.4000/teth.236>
- Sossa Rojas, Alexis (2013), «Una aproximación desde la sociología del cuerpo a los movimientos sociales». *Revista Latinoamericana de Estudios sobre Cuerpos, Emociones y Sociedad* 13, año 5, 9-20.
- Tejerina, Benjamín (1992), *Nacionalismo y lengua: los procesos de cambio lingüístico en el País Vasco*. Madrid: CIS.
- Urla, Jacqueline (2012), *Reclaiming Basque: Language, Nation and Cultural Activism*. Reno: University of Nevada Press.